

Euskararako lehen programa zuzentzailea

Zer da Xuxen?

Xuxen euskararako zuzentzaile ortografikoa da. Dokumentu bat **Xuxen**etik pasatzeko (**Xuxentzeko**, esaterik balego), lehenbizi dokumentua osorik editatu behar da eta ondoren zuzendu. Hala ere, eta nahikoa memoria edukiz gero, posible da editatzen ari den bitartean ere hitzak edo testu-zatiak egiaztatzea arbela erabiliz.

Zertarako balio du?

Helburua euskarazko testuen zuzentasun ortografikoa bermatzea da, hau da, errore tipografikoak zein ortografikoak detektatu eta zuzentzea. Helburu honi begira euskara batua da onartzen dena. Euskara batuan zuzena ez den hitz bat aurkitzen duenean **Xuxen**ek abisua ematen du. Abisuari kasu egitea edo ez egitea erabiltzailearen esku dago.

Zer egiten du?

Xuxenek dokumentu bat edo gehiago azter ditzake exekutaldi bakoitzean. Dokumentuak hitzez hitz tratatzen dira, hitz bakoitza zuzena denentz erabakiz. Hitzak ezagutzen dituen bitartean lanean jarraitzen du etengabe, baina hitzen bat ezagutzen ez duenean abisua eman eta gelditu egiten da. Momentu horretan erabiltzaileak honako aukera hauek ditu:


- Hitz onartu agerpen konkretu horretan.
- Hitz onartu eta ezagutu aurrerantzean dokumentu horretan.
- Hitzaren erroa hiztegi pertsonalean sartu; horrela hitz hori ezezik, bere errotik sortutako forma guztiak ere onartuko dira etorkizunean.
- Hitz kendu.
- Hitz zuzendu teklatutik, erabiltzaileak hitz-forma egokia dakienean.
- Proposamenak eskatu, erabiltzaileak hitza nola idazten den ez dakienean.

Zer ez du egiten?


Xuxenek, beste zuzentzaile ortografiko guztiek bezala, ez du testuingurua kontuan hartzen; beraz, ondoko kasu hauetan ez du laguntzarik emango:

- Arazo sintaktikoetan: "Ni dut" edo "berari eman du" bezalakoak ontzat emango ditu, hitzez hitz hartuta horiek denak zuzenak baitira.
- Akats baten ondorioz sortutako hitz egokietan: "klaseak hazi dira" idatziz gero, "hazi" beharrean "hasi" jarri nahi bazen, hori ez litzateke harrapatuko.

Zuzentzeko pantaila:



Hiztegia aberasteko pantaila:



Aukera nagusiak:

Testu bat zuzendu: **Ireki**

Testuak zuzenketarako prestatu prozesua azkartzeko: **Zuzenketarako prestatu**

Zalantzak editatu ahala kontsultatu arbelaren bidez: **Zuzendu arbelekoa**

Hiztegi pertsonala aberastu eta kontsultatu: **Hiztegia ireki**

Fitxategia	Edizioa
Ireki...	⌘O
Zuzenketarako prestatu...	⌘P
Zuzendu arbelekoa...	
Hiztegia ireki...	⌘H
Laguntza	⌘?
Irten	⌘Q

Erabiltzeko ezaugarriak:

Betebeharrak :

- Macintosh edo PowerMac — 4 Mega memorian — Sistema 7
- PC 386 edo indartsuagoa — 4 Mega memorian — Windows 3.1

Testu-prozesadore bateragarriak :


- Mac : Microsoft Word 4, 5
- PC : Microsoft WinWord 2 eta WordPerfect 5

Aukera nagusiak :

- Testu baten ortografia zuzendu
- Testu sãil bat egiaztatu eta zuzentzeko prestatu
- Zalantzak kontsultatu
- Zuzenketarako hiztegi pertsonalak osatu

Hiztegi orokorra :

- Modernoa eta zabala : 60.000 sarreratik gora
- Egungo euskara batua, Euskaltzaindiaren azken proposamenekin



Xuxen

(Macintosh edo PC)

Euskararako zuzentzaile ortografikoa



INFORMATIKA
FAKULTATEA

Xuxen Taldea
Informatika Fakultatea (EHU)
649 Posta kutxa
E-20080 Donostia



U Z E I

U.Z.E.I.
Aldapeta, 20
E-20009 Donostia

HIZKIA

Hizkia
immeuble SEI
le Forum
F-64100 Baiona